

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 2/2018 Zerga premiazko araugintzako dekretua, irailaren 11koa. Onestea, sartutako hainbat aldaketa direla eta Arabako zerga arautegia egokitzea onartzea. Aldaketak honako hauei dagozkie: Balio Erantsiaren gaineko Zerga, Zerga Bereziak, Negutegi Eftukua eragiten duten Fluor Gasen gaineko Zerga eta berandutze interesa

Estatuaren 2018rako aurrekontu orokorren legea onetsi eta argitaratu zelarik (6/2018 Legea, uztailaren 3koa), aldaketak eragin ziren balio erantsiaren gaineko zerga, zerga bereziak eta berotegi efektuko gas fluortuen gaineko zerga arautzen dituzten araudietan.

Era berean, aipatutako legeak ehuneko 3,75ean finkatzen du berandutze interesa, 2018ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko aldirako.

Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia itunak, zeina maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onetsi baitzuen, 26. eta 33. eta 21. artikuluetan ezartzen du balio erantsiaren gaineko zerga, zerga bereziak eta berotegi efektuko gas fluortuen gaineko zerga itundu beharra, eta xedatzen du ezen, zenbait salbuespen izan ezik, lurralde historikoetako erakunde eskudunek Estatuak unean-unean ezartzen dituen edukizko eta formazko arau berberak aplikatu behar dituztela.

Horiek horrela, Arabako Lurralde Historikoko zerga araudian txertatu behar dira aipatutako xedapen orokorretan jasotako aldaketak.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena aztertu da.

Horren ondorioz, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egin duen bileran gaia aztertu ondoren, eta 6/2005 Foru Arauaren 8. artikulua (otsailaren 28koa, Arabako zergei buruzko orokorra) eta 52/1992 Foru Arauak (abenduaren 18koa, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzkoa) esleitzen dizkidaten eskudantziez baliatuz, presako arrazoiak direla-eta, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Aldatzea 12/1993 Araugintzako Foru Dekretua, urtarrilaren 19koa, balio erantsiaren gaineko zergarena

Lehenengoa. 2019ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, aldatu egiten dira 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuaren agindu hauek (urtarrilaren 19koa, balio erantsiaren gaineko zergarena):

Bat. Aldatu egiten da 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuaren 20. artikulua Bat apartatuaren 6. zenbakia (12/1993 Araugintzako Foru Dekretua, urtarrilaren 19koa, balio erantsiaren gaineko zergarena), eta honela geratzen da idatzita:

“6. Jarduera salbuetsi bat edo zergaren pean ez dagoen bat, kenkarirako eskubidea eragiten ez duena, gauzatzen duten pertsonak baizik eratzen ez duten batasunek, taldeek edo entitate autonomoek (interes ekonomikoko taldeek barne) beren kideei zuzenean emandako zerbitzuak, honako baldintzak bilduz gero:

a) Zerbitzuak jarduera horretan zuzenean erabiltzea, eta horrexetarako baino ez, eta jarduerarako beharrezkoak izatea.

b) Kideek batera egindako gastuetatik dagokien zatia bakarrik itzultzea.

c) Gauzatzen den jarduera salbuetsia ez izatea artikuluko honetako Bat apartatuko 16., 17., 18., 19., 20., 22., 23., 26., eta 28. zenbakietan aipatzen denetakoa.

Kasu honetan ere aplikatuko da salbuespena: aurreko b) letran ezarritako betebeharra beterik, kenkariaren hainbanatzea ez denean ehuneko 10 baino gehiago eta zerbitzua ez denean erabiltzen kenkarirako eskubidea eragiten duten eragiketetan bakarrik eta zuzenean.

Salbuespen hau ez zaie aplikatuko merkataritzako sozietateek ematen dituzten zerbitzuei.”

Bi. Aldatu egiten dira 70. artikulua eta Bat apartatuaren 4. eta 8. zenbakiak, eta honela geratzen dira idatzita:

“4. Bitarteko elektronikoz, telekomunikazioz eta irrati eta telebista bidez ematen direnak, baldin eta hartzailea ez bada enpresari edo profesional bat, hala diharduena, eta, betiere, hura zerga aplikatzen den lurraldean badago ezarrita edo han badauka bere egoitza edo ohiko bizilekua, kasu hauetan:

a) Honako betebeharrak hauek betetzen direnean:

a') Enpresari edo profesional batek, hala diharduenak, gauzatuak izan behar dute, eta beste estatu kide batean bakarrik egon behar du ezarrita, han daukalako bere ekonomia jardueraren egoitza, edo Erkidegoan daukalako bere establezimendu bakarra edo daukalako establezimendu iraunkorrak, edo, halakorik ezean, bere bizileku iraunkorra edo ohiko egoitza; eta

b') Hala diharduen enpresari edo profesional ez diren hartzaileei, Erkidegoko lurraldean (a') letran ezarritako estatu kidean izan ezik) ezarrita dauden edo egoitza edo ohiko bizilekua dutenei, emandako prestazioen zenbatekoa, orotara, zerga aparte, 10.000 euro (edo horren baliokidea estatuko monetan) baino gehiago izatea aurreko urtean.

a) letran aurreikusitakoa aplikatuko zaie uneko urtean emandako zerbitzuei, behin aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoaren muga gainditu ondoren.

Halaber, zerga aplikatzekoa den lurraldean gauzatutakotzat joko dira zerbitzu horiek, a) letran adierazitako baldintzak betez gauzatutakoak, nahiz eta zenbateko muga hori gainditu ez, baldin eta enpresariak edo profesionalek leku hori hautatu badute tributatzeko ezarrita dauden estatu kidean.

b) Hala diharduen enpresari edo profesional batek gauzatuak izatea, aurreko a) letrako a') letran aipatuez besteko batek.

“8. Bitarteko elektronikoz, telekomunikazioz eta irrati eta telebistaz ematen direnak, honako betebeharrak hauek betetzen badira:

a) Hartzailea ez izatea hala diharduen enpresari edo profesional bat, betiere beste estatu kide batean badago ezarrita edo han badauka bere egoitza edo ohiko bizilekua;

b') Enpresari edo profesional batek, hala diharduenak, gauzatuak izan behar dute, eta zerga aplikatzekoa den lurraldean bakarrik egon behar du ezarrita, han daukalako bere ekonomia jardueraren egoitza, edo Erkidegoaren lurraldean daukalako bere establezimendu bakarra edo daukalako establezimendu iraunkorrak, edo, halakorik ezean, bere bizileku iraunkorra edo ohiko egoitza; eta

c) Aurreko a) letran aipatzen diren hartzaileei emandako zerbitzu horien zenbatekoa, guztira, zerga aparte, ez izatea aurreko urtean 10.000 euro (edo horren baliokidea estatuko monetan) baino gehiago.

Zenbaki honetan aurreikusitakoa aplikatuko zaie uneko urtean emandako zerbitzuei, harik eta aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoaren muga gainditzen den arte.

Enpresari edo profesional horiek aukeran izango dute ez aplikatzea zenbaki honetan xedatutakoa, arautegiz ezarritako eran, nahiz eta 10.000 euroko muga gainditu ez. Aukera hori, gutxienez, bi urterako izango da.”

Hiru. Aldatu egiten da 163 octiesdecies artikulua Bi apartatuaren a) letra, eta honela geratzen da idatzita:

“a) “Enpresari edo profesional Erkidegoan ez ezarria”: ekonomia jardueraren egoitza Erkidegotik kanpo daukan eta Erkidegoaren lurraldean establezimendu iraunkorrik ez daukan enpresari edo profesional oro;”

Laugarrena. Aldatu egiten da 163 noniesdecies artikulua Bat apartatuaren a) letra, eta honela geratzen da idatzita:

“a) Adieraztea araubide berezi honen peko eragiketak noiz hasten, aldatzen edo amaitzen diren. Adierazpena baliabide elektronikoaren bitartez aurkeztu behar dute.

Erkidegoan ezarrita ez dagoen enpresari edo profesionalak bere jardura zergapetuak hasi dituela adieraztean ematen duen informazioak honako identifikazio datu hauek izan behar ditu: izena, posta helbideak eta posta elektronikoko helbidea, eragiketak egiteko baliatzen dituen internet guneen helbide elektronikoak (halakorik balerabil), jardueraren egoitza duen hirugarren lurraldeko zerga administrazioan zein zenbakirekin identifikatuta dagoen, eta bere ekonomia jardueraren egoitza erkidegoaren lurraldean kokatu ez duelako eta han establezimendu iraunkorrik ez duelako aitortpen bat. Halaber, datu horietan ezer aldatuz gero, Batasunean ezarrita ez dauden enpresariak eta profesionalek horren berri eman behar dute.

Kanariar uharteetan, Ceutan edo Melillan establezimendua daukaten enpresariak eta profesionalek datu hauek eman beharko dituzte zergapeko jardura bati ekingo diotela jakinarazten dutenean: izen-abizenak, posta helbidea, helbide elektronikoa, jarduerarako erabiliko dituen interneteko guneen helbideak eta Espainiako Zerga Administrazioak emandako identifikazio fiskaleko zenbakia.

Araubide honen ondorioetarako, Zerga Administrazioak banakako zenbaki baten bidez identifikatuko ditu Europar Batasunean ezarrita ez dauden enpresariak eta profesionalek.

Zerga Administrazioak posta elektronikokoaren bidez jakinaraziko dio Batasunean ezarrita ez dagoen enpresari eta profesional bakoitzari esleitutako identifikazio zenbakia.”

Bigarrena. 2018ko uztailaren 5etik aurrerako ondorioekin, aldatu egiten dira 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuaren agindu hauek (urtarrilaren 19koa, balio erantsiaren gaineko zergarena).

Bat. Aldatu egin da 21. artikulua A) letrako 2. zenbakiaren a) letra, eta honela geratzen da idatzita:

“a) Salbuespena gauzatuko da eskuratzeetan jasandako zerga itzuliz.”

Bi. Aldatu egiten da 22. artikulua Hamahirugarren apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

“Hamahiru. Bidaiarien eta haien bagajeen itsasozko edo airezko garraioak, zergaren peko eremutik kanpoko portu edo aireportu batetik datozenak edo horrelako batera doazenak.

Apartatu honetan sartzen direla joko da airezko garraio titulu bakar batek babesturik aire konexiozko hegaldiak dauzkatenak.”

Hiru. Aldatu egiten da 91. artikulua Bat.2 apartatuaren 6. zenbakia eta Bi.2 apartatuaren 3. zenbakia, eta honela geratzen dira idatzita:

“6. Liburutegi, agiritegi eta dokumentazio zentro, museo, arte galeria, pinakoteka, zinema areto, antzoki, zirku, zezenketa ospakizun, kontzertu eta bizian ematen diren gaineko kultur ikuskizunetarako sarrerak”

“3. Telelaguntzako, etxez etxeko laguntzako, eguneko eta gaueko zentroetako eta egoitzazko arreta zentroetako zerbitzuak, 39/2006 Legearen 15. artikulua b), c), d) eta e) letretan aipatzen direnak (39/2006 Legea, abenduaren 14koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonentzako arretari buruzkoa) betiere plaza itunduak dauzkaten zentro edo egoitzetan edo zerbitzu horiek ematen dituzten enpresei esleitutako administrazio lehiaketa baten ondoriozko prezioen bidez ematen badira, edo zerbitzu horiei lotutako diruzko prestazio baten ondorioz ematen badira, eta betiere prezioen ehuneko 10 baino gehiago estaliz, eta, bai kasu batean bai bestean, legean xedatutakoaren ondorioz”

2. artikulua. Aldatzea 1/1999 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 16koa, zerga bereziak arautzen dituen

Lehenengoa. Ondorioak 2018ko uztailaren 1etik aurrera izango dituztela, aldaketa hauek sartzen dira 1/1999 Zerga Premiamenduzko Araugintzako Dekretuan (otsailaren 16koa, zerga bereziak arautzen dituen):

Bat. Aldatu egiten dira 50. artikulua 3. eta 4. apartatuak, eta honela geratzen dira idatzita:

“3. Alde batera utzi gabe 8. artikulua 7. apartatua ezarritakoa, artikulua honetan ezartzen diren zerga tasak aplikatzeko baldintza izango da arautegiz ezarritako betebeharrak betetzea, eta, horien artean, hala balegokio, trazatzaileak eta markagailuak eranstea, produktuei egiaz zer erabilera eman zaion edo ordainketa bitarteko jakin batzuk erabiltzea.

4. “Gas naturalez hornitzen denean energia elektrikoa eta energia termiko erabilgarria kogenerazioz sortzeko lantegi batean erabiltzeko, eta lantegi hori 24/2013 Legearen aplikaziozko araudian aipatzen den eraginkortasun energetikozko baldintzen pean badago, edo arautegiz ezarritako betebeharrak betetzen baditu, artikulua honen 1.10.1 eta 1.10.2 epigrafeetan arautzen diren zerga tasak aplikatuko dira, alternadore borneyan neurtutako elektrizitate produkzioari eta energia termiko erabilgarriari egotzi beharrekoa den gas naturalaren ehunekoaren arabera.

Bi. Aldatu egiten da 51. artikulua 4. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

“4. NC 2705 kodean sailkatutako produktuak eta biogasa fabrikatzea eta inportatzea, elektrizitatea produzitzeko edo elektrizitatea eta beroa kogenerazioz sortzeko edo sortu diren instalazioetan bertan autokontsumorako baliatu badira.

Salbuespen hau aplikatzeko, elektrizitatea produzitzeko edo elektrizitatea eta beroa kogenerazioz sortzeko instalazioak izan behar du jarduera, energia elektrikoa nahiz kogeneraziozko energia elektrikoa eta bero erabilgarria ondoren probetxu energetikoa emateko produzitzeko, 24/2013 Legearen aplikazio eremuaren barruan duenetakoa (24/2013 Legea, abenduaren 26koa, sektore elektrikoa), eta ezartzeko eta jarduera hasteko baimena lege horren IV. tituluan ezarritako eran baimendu izan zaiona.

Hiru. 4. apartatu bat gehitzen zaio 83. artikuluari, eta honela geratzen da idatzita:

“4. Alde batera utzi gabe 2. apartatua ezarritakoa, artikulua honetan jasotzen diren salbuespenak aplikatzeko baldintza izango da arautegiz ezarritako baldintzak betetzea”

Bigarrena. Ondorioak 2019ko uztailaren 1etik aurrera izango dituztela, aldaketa hauek sartzen dira 1/1999 Zerga Premiamenduzko Araugintzako Dekretuan (otsailaren 16koa, zerga bereziak arautzen dituen):

Bat. Aldatu egiten da 50. artikulua 1. apartatuko 1. tarifa, eta honela geratzen da idatzita:

"1. tarifa:

1.1. epigrafea. Berundun gasolinak: tasa orokorra, 433,79 euro 1.000 litroko, eta tasa berezia, 72 euro 1.000 litroko.

1.2.1. epigrafea. Berun gabeko gasolinak, 98. O. I edo oktanaje handiagokoak: tasa orokorra, 431,92 euro 1.000 litroko, eta tasa berezia, 72 euro 1.000 litroko.

1.2.2 epigrafea. Berunik gabeko gainerako gasolinak: tasa orokorra, 400,69 euro 1.000 litroko; tasa berezia, 72 euro 1.000 litroko.

1.3 epigrafea. Erabilera orokorrerako gasoleoak: tasa orokorra, 307 euro 1.000 litroko; tasa berezia, 72 euro 1.000 litroko.

1.4 epigrafea: 54. artikulua 2. idatz zatian ezarritako erabileretan karburante gisa eta, orokorrean, erregai gisa erabiltzeko gasolioak: tasa orokorra, 78,71 euro 1.000 litroko, eta tasa berezia, 18 euro 1.000 litroko.

1.5. epigrafea Fuelolioak: tasa orokorra, 14 euro tonako, eta tasa berezia, 3 euro tonako.

1.6 epigrafea. Erabilera orokorreko PGL: 57,47 euro tonako.

1.8 epigrafea, karburantez besteko erabileretarako PGLa: 15 euro tonako.

1.9 epigrafea. erabilera orokorrerako gas naturala: 1,15 euro giga-jouleko.

1.10.1 epigrafea. Erregaitarako erabiltzen ez den gas naturala eta motor geldikorretako erre-gai gisa erabiltzeko gas naturala: 0,65 euro gigajulioko.

1.10.2 epigrafea. Helburu profesionalekin erabiltzeko den gas naturala, baldin eta energia elektrikoaren zuzeneko nahiz zeharkako generazioko edo kogeneraziozko prozesuetan ez bada erabiltzen: 0,15 euro giga-jouleko.

Epigrafe honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, helburu profesionalekin erabiltzeko den gas naturalatzat hartzen dira industria lantegi eta instalazioetan kontsumitzeko egiten diren gas naturalaren hornikuntzak, salbu eta energia termiko baliagarria sortzeko erabiltzen dena, energia horren azkeneko aprobetxamendua industria lantegi edo instalazioen izaera ez duten establezimendu edo lokaletan egiten bada. Halaber, helburu profesionalekin erabiltzeko den gas naturalatzat joko da nekazaritza lanetan erabiltzen den gas naturala.

1.11. epigrafea. Erabilera orokorreko kerosenoa: tasa orokorra, 306 euro 1.000 litroko, eta tasa berezia, 72 euro 1.000 litroko.

1.12 epigrafea. Karburantez besteko erabileretarako kerosenoa: 78,71 euro 1.000 litroko.

1.13 epigrafea. Erregai gisa erabiltzen diren bioetanola eta biometanola:

a) Bioetanola eta biometanola berunik gabeko 97 O. I. edo oktano gehiagoko gasolinekin nahasita: tasa orokorra, 431,92 euro 1.000 litroko; tasa berezia, 72 euro 1.000 litroko.

b) Bioetanola eta biometanola berunik gabeko gainerako gasolinekin nahasita, edo nahasi gabe: tasa orokorra, 400,69 euro 1.000 litroko; tasa berezia, 72 euro 1.000 litroko.

1.14 epigrafea. Karburante gisa erabiltzeko biodieselak: tasa orokorra, 307 euro 1.000 litroko; tasa berezia, 72 euro 1.000 litroko.

1.15 epigrafea: 54. artikulua 2. idatz zatian ezarritako erabileretan karburante gisa eta, orokorrean, erregai gisa erabiltzeko biodieselak, eta erregai gisa erabiltzeko biometanola: tasa orokorra, 78,71 euro 1.000 litroko, eta tasa berezia, 18 euro 1.000 litroko.

1.16 epigrafea. Energia elektrikoa produzitzeko edo kogeneraziozko energia elektrikoa eta beroa sortzeko gasolioak, bata nahiz besteak produzitzeko instalazioen jardura 24/2013 Le-gearen aplikazio eremuan sartzen bada (abenduen 26koa, sektore elektrikoarena): 25,15 euro 1.000 litroko.

1.17 epigrafea. Energia elektrikoa produzitzeko edo kogeneraziozko energia elektrikoa eta be-roa sortzeko fuelolioak, bata nahiz besteak produzitzeko instalazioen jarduera 24/2013 Legearen aplikazio eremuan sartzen bada (abenduaren 26koa, sektore elektrikoarena): 12.00 euro tonako”

Bi. Aldatu egiten da 52 bis artikulua 6. apartatuko a) letra, eta honela geratzen da idatzita:

“a) Itzulketako tasa, 1.000 litroko eurotan adierazita, 1.3 epigrafeko zerga tasari (itzulketa eskubidea sortzen den garaian indarrean dagoenari) 306 euro kenduta ateratzen den zenbateko positiboa izango da, eta tasa bereziari 48 euro kenduta ateratzen dena”

3. artikulua. Aldatzea 27/2014 Foru Araua, uztailaren 9koa, berotegi efektuko gas fluortuen gaineko zergarena

2018ko irailaren 1etik aurrera ondorioak izaten hasteko, aldatu egiten da 27/2014 Foru Araua-ren 11. artikulua (uztailaren 9koa, berotegi efektuko gas fluortuen gaineko zergarena), eta honela geratzen da idatzita:

“11. artikulua. Zerga tasa.

1. “1. tarifa: Atmosfera berotzeko potentzialaren arabera izango da zerga.

Zerga-tasa kalkulatzeko, 0,015 koefizientea aplikatuko zaio gas fluortu bakoitzak atmosfera berotzeko duen potentzialari; dena den, gehienez ere 100 euro ordainduko dira kilogramo bakoitzeko, honako epigrafe hauei jarraituz:

EPIGRAFEA	BEROTEGI-EFEKTUKO GAS FLUORTUA	ATMOSFERA BEROTZEKO POTENTZIALA	TASA €/KG-KO
1.1.	Sufre hexafluoruroa	22.800	100
1.2.	HFC - 23	14.800	100
1.3.	HFC - 32	675	10,13
1.4.	HFC - 41	92	—
1.5.	HFC - 43-10mee	1.640	24,6
1.6.	HFC - 125	3.500	52,5
1.7.	HFC - 134	1.100	16,5
1.8.	HFC - 134a	1.430	21,45
1.9.	HFC - 152a	124	—
1.10.	HFC - 143	353	5,3
1.11.	HFC - 143a	4.470	67,05
1.12.	HFC - 227ea	3.220	48,3
1.13.	HFC - 236cb	1.340	20,1
1.14.	HFC - 236ea	1.370	20,55
1.15.	HFC - 236fa	9.810	100
1.16.	HFC - 245fa	693	10,4
1.17.	HFC - 245fa	1.030	15,45
1.18.	HFC - 365mfc	794	11,91
1.19.	Perfluorometanoa	7.390	100
1.20.	Perfluoroetanoa	12.200	100
1.21.	Perfluoropropanoa	8.830	100
1.22.	Perfluorobutanoa	8.860	100
1.23.	Perfluoropentanoa	9.160	100
1.24.	Perfluorohexanoa	9.300	100
1.25.	Perfluoroziklobutanoa	10.300	100

2. “2. tarifa:

2.1 epigrafea: Prestakinak: zerga-tasa kalkulatzeko, 0,015 koefizientea aplikatuko zaio prestakinetik eratorritako atmosfera berotzeko potentzialari, betiere bosgarren apartatuaren 2. zenbakian xedatutakoa kontutan hartuta eta kilogramo bakoitzeko gehienez ere 100 euro ordainduko direlarik.

3. "3. tarifa:

3.1. epigrafea. 1. tarifako gas birsortuak eta birziklatuak: zerga tasa izango da 0,50 koefizientea 1. tarifyan ezarritako tasari aplikatzetik ateratzen dena.

3.2. epigrafea. 2. tarifako prestakin birsortuak eta birziklatuak: zerga tasa izango da 0,50 koefizientea 2. tarifyan ezarritako tasari aplikatzetik ateratzen dena"

4. artikulua. Berandutze interesak

2018ko urtarrilaren 1etik hasi eta 2018ko abenduaren 31 arteko ondorioekin, 6/2005 Foru Arauaren 26. artikuluaaren 6. apartatua (otsailaren 28koa, Arabako Zergen Orokorra) aipatzen den berandutze interesa 3,75 izango da.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Xedapen orokor hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean. Ondorioak, hala ere, artikuluetan adierazten den bezala sortuko ditu.

Bigarrena. Gaikuntza.

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Hirugarrena. Batzar Nagusietara bidaltzea.

Zerga Premiazko Araugintzako Dekretu hau Arabako Batzar Nagusiei aurkeztuko zaie, indarrean dagoen arautegian ezarritakoaren arabera berretsi edo ezeztatu dezaten.

Gasteiz, 2018ko irailaren 11

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua

JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ

Ogasun zuzendaria

TERESA VIGURI MARTÍNEZ